

**Amaia Espinosa:** Lehenengo eta behin, eskerrik asko denoi, daukagun eguna izanda ere, ez da gauza gutxi gaurko honetan hurbiltzearena. Eskerrik asko beraz, gure etxe honetara eta zuen etxea izatea nahi dugun honetara etorri izanagatik. Horixe da Jardunaldi hauekin hastean izan dugun helburu nagusia, hau da, etxe hau zabaltzea eta izan dadila iritziak partekatzeke eremu eta bidea .

Gure asmoa hori da, eta bide horretatik hasi ginen jardunaldiak antolatzen. Horien artean, guretzat garrantzitsuak diren hezkuntza arloko eragile guztiei hitza eman eta bidea zabaldu nahi izan diegu. Halaber, aukera eman nahi izan diegu beraien arazoak, asmoak, egitasmoak eta ideiak zabaltzeko eta denon artean eztabaidatzeko. Gure esku dagoen neurrian, kudeatzeko eta dagokion tokian bide emateko.

Gaurko jardunaldi hau, berezia eta garrantzitsua da guretzat, oso eragile bereziak ditugulako. Esango nuke eragilerik garrantzitsuenetakoak dira hezkuntza mailan. Gurasoak eragile garrantzitsuak direlako , ezinbesteko jo dugu gurasoen arteko elkar ezagutza eta arazo eta kezkek partekatzea.

Gaurko jardunaldi hau bideratzeko, egoki jo dugu Guraso Elkarteak ezagutzen dituen bati deitzea eta hori da Ana Izagirre andrea. Bera izango da jardunaldia gidatuko duena eta aurkezpenak egingo dituena.